

Denboraren makina

Nagore Irazustabarrena

La Argentinaren agur isila

DONOSTIA, 1936KO UZTAILAK 18. Antonia Mercé *La Argentina* flamenko dantzari handiaren omenez euskal dantza jaialdia egin zuten.

La Argentina ezizena 1890ean Buenos Airesen jaio izanari zor zion. Gurasoak espainiarrak zituen baina Argentinara dantza emanaldiak eskaintzera egindako bidaian erditu zen ama. Manuel Mercé, aita, *Teatro Reale*ko koreografoa eta lehen dantzaria zen. Ama, Pepita Luque, ere konpainia horretan hasi zen Mercé ezagutu eta berehala. Berandu hasi zen dantzan Pepita, baina berezko grazia eta interpretazio gaitasun handia omen zituen. Senarra hotzegia zen, baina langilea, akademikoa eta teknikoki perfektua. Elkarren osagarri ziren biak eta alabak bien bertuteak jaso zituen. Aitak ez zuen alaba dantzaria izaterik nahi, operako izarra izan zedin gurago zuen. Alferrik; Antonia Mercé dantza flamenkoa gailurrera eramateko jaio zen.

Behetik hasi zen *La Argentina*. Hamairu urterekin Madrilgo Apolo antzokian hasi zen korista moduan. Zarzuelan jardungo zuen ondoren eta Romea antzokian, ostegunetan, bere saio propioa lortuko zuen aurrerago.

Ateneoko intelektual gazteak gustuko zuten Mercéren artea, baina kontaktu horiek oraindik ez zioten bere karrerari mesede handirik egiten.

Hogeita bat urterekin atzerrian dantzatu zuen lehen aldiz. Portugalen izan zen lehenik eta Parisera joan zen gero. Baina Moulin Rougeko lehen emanaldi hark e zuen oihartzunik izan. AEBtan bai, arrakasta handia izan zuen. 1918an Espainiara itzuli zenean nazioarteko artista ezaguna zen. Baina orduko munduko hiriburu kulturala, Paris, konkistatzeko zeukan oraindik.

Eta apustu arriskutsua egin zuen. Pastora Imperiok Manuel de Fallaren *El amor brujo* estrinatua zuen Parisen; porrot handia izan zen. Bada, Mercé obra bera moldatu eta 1925eko maiatzaren 22an estreinatu zuen Frantziako hiriburuan. Arrakasta izugarria lortu zuen, Parisen lehenik eta Europa osoan eta Ameriketara gero.

Antonia Mercé bere begi berdeak erakusteko kapela atzera botatzea erabakitzen bazuen, kapela eramateko modu hori moda bilakatzeko zen. Coco Chanel eta Jean Patouk jantziak propio egiten zizkieten. Elegantiaren paradigma zen *La Argentina* eta etxean, Espainian, 27ko belaunaldiaren artista kuttuna. "Ijitu kontuak" zirenak eszenatoki prestigio-suenetara eramane zituen.

Bere artearen erroak ez zituen inoiz baztertu eta, flamenkoaz gain, beste folklore adierazpen batzuk ezagutarazi eta bultzatzeko ahaleginean jardun zuen beti. Euskal folkloreaken kutsu liturgikoa, solemnitatea, sakontasuna maite zituen. Horregatik egin zioten omenaldia euskal dantzariak Donostian.

Jaialdia amaituta, iluntzean, ondoezik sentitu zen dantzari handia. Baionatik gertu zuen Miraflores etxera itzultzea erabaki zuen. Muga pasa eta etxera iritsi baino lehen hil zen Antonia Mercé. Hurrengo egunean egunkariak ez zuten halako galera garrantzitsua jasoko. Bera hil baino ordu batzuk lehenago gerra piztu zen Espainian. ▢

Arrastoak

TUTANKHAMON ez zuten hil. Horixe ondorioztatu dute faraoi gaztearen momiarri eskaner berri bat egin ondoren.

1968tik aurrera Tutankhamon buruan kolpe bat emanda hil zutela pentsatzen zen. Urte hartan x izpiek erakutsi zuten faraoiaren garezurraren barruan bi hezur zati zeudela. Baina nazioarteko aditu talde batek egindako azken eskaner honek erakutsi du bi hezur horiek bizkarrezurrean, burutik gertu, falta diren zatiak direla. Zatiak solte zeuden, enbalsamatu gabe.

Horregatik, gorpua ehortzi ondoren hautsi zirela pentsatzen dute adituek. Ashraf Selim radiologo egipziarraren ustez, hezurrak 1922an puskatu zituzten nahi gabe, Howard Carterren taldea momiarri urrezko maskara kentzen saiatu zenean.

Hilketaren hipotesia baztertua, adituek teoria sinpleagoa hobesten dute orain: dirudienek faraoiak hanka hautsi zuen, zauria infektatu eta horregatik hil zen duela 3.300 urte baino gehiago.

